

## **MAIZ EGITEN DIREN ONARPEN-ESKABIDEARI BURUZKO GALDERAK**

### ***Nork egin behar du onarpen-eskabidea?***

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan onarpen-eskabidea egin behar du ikasle bat maila horietan eskolatu nahi duen orok, eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

1. Ikaslea 2 urtekoen Haur Hezkuntzan eskolatzea, edo
2. Ikaslea lehenengo aldiz joatea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe batera, edo
3. Ikaslea lehenik ere EAEn eskolatu egotea, baina:
  - a. Ikastetxez aldatu nahi izatea, edo
  - b. Ikastetxez aldatzeko interesik ez baina une honetan eskolaturik dagoen ikastetxean hizkuntza-eredua aldatu nahi izatea.

### ***Zein bidetatik bete daiteke onarpen-eskabidea?***

Onarpen-eskabidea 2 bidetatik egin daiteke:

1. ***Ikastetxera joanda***, ikaslea eskolatu nahi den maila ematen duen edozein ikastetxetara joanda.
2. ***Internet eta ikastetxea***, eskatzaileak onarpen-eskabidearen zirriborro bat Internetez bete eta ondoren derrigorrezko agiriak ikastetxera eramanda.

### ***Eskabidea Internetez egin ondoren ikastetxera joan behar al da?***

***Bai***. Lehenetsitako ikastetxera joan eta Interneteko eskabidea egitean bukaeran aipatutako derrigorrezko agiriak utzi behar dira bertan. Joan beharreko ikastetxearen datuak eta eman beharreko agiriak jakinaraziko dira Internet bidezko onarpen-eskabidearen bukaeran.

### ***Internetez edo ikastetxera joanda egindako onarpen-eskabide batek balio al du derrigorrezko agiriak aurkeztu gabe?***

***Ez***. Onarpen-eskabidearen izapidea Internetez hasi nahiz ikastetxera joanda hasi, eskabide bat baliozkoa izateko beharrezkoa da:

1. Derrigorrezko agiriak ikastetxean aurkeztea.
2. Ikastetxeak eskabidearen frogagiria ematea, ikastetxearen zigiluarekin eta eskatzaileak sinatuta.

### ***Egin al daitezke hainbat onarpen-eskabide ikasle berarentzat hainbat ikastetxetan?***

***Ez***. Onarpen-eskabidea edozein eratan eginik ere (Internetez edo ikastetxera joanda), ikasle bakoitzaren onarpen-eskabide bakarra egin daiteke.

### ***Zeri esaten zaio "lehenetsitako ikastetxea"?***

Lehenetsitako ikastetxea da ***bertara joanda onarpen-eskabidea egiten dena, edo lehenbizi aukeratutakoa Internet bidezko eskabidean***.

### ***Eskabide bakar batean aukeratu al daitezke ikaslea eskolatzeko hainbat ikastetxe?***

***Bai***. Eskabidea Internet bidez egin nahiz ikastetxera joanda egin, nahi izanez gero ***3 ikastetxe arte*** aukera daitezke eta, haietako bakoitzean, nahi diren hizkuntza-ereduak lehentasun-ordenan, ikastetxeak eredu horiek eskaini edo ez.

### ***Edozein hizkuntza-eredu eskatu al daiteke edozein ikastetxetan?***

***Bai***. Onarpen-eskabidearen izapidea edozein eratan hasita ere (Internetez edo ikastetxera joanda), eskatzaileak eska dezake ikaslea edozein hizkuntza-eredutan eskolatzea (A, B eta D), ikastetxeak halakorik eskaini ez arren.

Eskatzaileak hizkuntza-eredu bat edo gehiago eska ditzake, bai eta haien lehentasun-ordena adierazi ere, bai lehenetsitako ikastetxean bai bigarren eta hirugarren aukeratutakoetan ere, halakorik eskatu badu.